

KONTROL MOZIOA

Zaugarritasun altuko eskolen inguruan

Izar Hernando Ibero EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2024ko abenduaren 9an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostia gero eta anitzagoa dugu, baita hezkuntza arloan ere. Zentzu horretan, errealitate desberdin eta ugari ditugu hezigune bakoitzean, eta horiek guztiek, hiriaren bizitzaren parte dira, eskumenak Udala gainditzen duen arren. Esan bezala, hezkuntza udalaz gaindiko eskumena da, baina heziguneak auzoetako bizitzaren parte ezinbesteko diren neurrian, heziguneetako errealitateak Udala interpelatzen duela uste dugu, eta Udalak baduela, hezkuntzaz harago, eremu horietan aurkitzen diren donostiarrei laguntzeko ardura. Udalak eman beharreko laguntzaren adibide dira, esaterako, eskoletara iristen den prebentzio eta esku-hartze goiztiarrerako programa, haurrak eta nerabeak egoera zailetara iritsi aurretik haien testuinguru naturaletatik bertatik esku hartuz babestea helburu duen programa.

Alabaina, baditugu Donostian gainerako heziguneekin alderatuta zaugarritasun indize dezente altuagoak dituzten eraikinak, zeinetan motz gelditzen diren eskura dituzten bitartekoak. Zentzu horretan, Udaletxeak laguntza berezitua eman behar liekeela uste dugu. Katalin Erauso, San Jose eta Herrerako eskola izan daitezke aipatzen dugun errealitate bereziaren adibide, baita Bideberri Institutua bidebietako auzoan ere. Horietan, segregazio ehunekoa oso altua da, eta horrekin batera, zaugarritasun indizea: iritsi berriak diren familia ugari, etxebizitzara sarbidea oso modu prekarioan, eroldarekin lotutako zailtasunak, auzoko bizitzan eta hirian integratzeko laguntza falta... Problematika horiek dituzten familia eta haur askorentzat, eskola da eskura eta konfiantzazkoa duten

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia
IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
10655n I 2011-06

lehen egitura. Hori horrela, irakasleek sarri amaitzen dute irakaskuntzaz harago doazen, eta teoriarik, haiei ez dagozkien funtzioak beren gain hartzen. Honek, eskolaren funtzionamendu normalean eragin handia izaten du; ondorioz, beste eskoletan modu naturalean garatzen diren ekimen ugari aurrera eramatea nabarmen zailtzen da..

Guzti hori kontuan hartuta, Udalak ez luke ase gelditu behar heziguneentzat modu orokorrean diseinatutako programa eta zerbitzuekin, eta egoeraren arabera laguntza eta akonpainamendua indartu behar luke. Badira eredu desberdinak: Araban heziguneetan gizarte langile edo gizarte hezitzaileak txertatzeko hausnarketa, psikologo komunitarioen zerbitzuak eskolan integratzea, edota gainerako eskoletan antolatzen diren ekimenak antolatzeko laguntza berezitua (san tomasa, danborrada, eskola kirola...). Horrekin batera, integratzeorako plan espezifikoak ere behar lituzkete eskola hauek, aisialdia, hezkuntza ez-formala eta auzoko/hiriko integrazioa lan-lerro izango dituenak.

Hori horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA:**

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egin dezala zaurgarritasun maila altua pilatzen duten heziguneen argazki eguneratua.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari azter ditzala zaurgarritasun maila altuko heziguneak laguntzeko aukera desberdinak, gizarte langileak edo hezitzaileak, psikologoak, eskolako ekimenak antolatzeko laguntza berezitua, edo bestelakoak aztertuz.

Donostian, 2025eko otsailaren 21an

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia